

BILBOKO UDALAK IPARRAGUIRRE KALEA TXUKUNDUKO DU, GUGGENHEIM MUSEOAREN ETA AZKUNA ZENTROAREN ARTEKO ARDATZ IZATEKO ETA KALE HORRETAKO ATARIETARAKO SARBIDEAK ERE KONPONDUKO DITU

- Udalak 2019an abiatuko du Guggenheim Museoaren eta San Jose plazaren arteko zatia, trafikoen arteko bizikidetza erraztuz baina pertsonen joan-etorriei lehentasuna emanez ibilgailuen gainetik.
- Horretarako, espaloiaiak zabalduko dira galtzadaren kota berean, ziklo semaforikoei jarraitzen dien argizko seinaleztapenaz bereizita, eta zirkulazio-erreia orain arte bezala noranzko bakarrekoa izango da.
- Guggenheim Museoaren inguruari trataera berezia emango zaio, eremu horrek egin dezan Museoaren atariaurrekoarena eta museoko jardueraren eta programazioaren parte ere izan dadin.
- Auzoko eta uriko proiektua da, proiektua zehazteko Udalak auzokoekin egindako parte hartze bidezko bileretan hartutako konpromisoak betetzera datorrena.

(*Bilbon, 2018ko abenduaren 11n*). Bilboko Udalak **Iparraguirre kalea txukunduko du, Guggenheim Museoaren eta Azkuna Zentroaren arteko ardatz izateko**. Lan horiek fasea egingo dira eta gaur, hain zuen ere, Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saileko zinegotzi **Asier Abaunzak lehenengo fasea aurkeztu du**, Museoaren eta San Jose plazaren arteko zatia. 8.500 metro karratuko jarduketa-eremua da, luzetara 330 metro ditu eta lehentasuna emango zaie oinezkoei, espaloiaiak zabalduta; 3,5 metroko espaloiaiak 5,5 metro izateraino zabalduko dira.

Gainera, espaloiaiak galtzadaren kota berean egongo dira eta zirkulazio-erreia orain arte bezala noranzko bakarrekoa izango da. Aparkalekuak oraingoz kendu egingo dira baina laster Juan Ajuriaguerra kalean egingo den aparkalekuen berrantolaketaren ondoren berriro jarriko dira.

Espaloietan granitzeko zoladura jarriko da, kalitateko materiala erabiltze aldera. **Argiztapenak berebiziko garrantzia izango du jarduketa-eremu osoan**. Sigi-sagan egongo den katenaria batek lotuko ditu zutoinak eta handik zintzilik led motako argi linealak ipiniko dira, ausazko marrazkia osatuko dutenak, inguruari dinamismoa emanez eta Guggenheim Museoarekin nahiz Azkuna Zentroarekin lotuz.

Mugimendu-itxura hori areagotu egingo da bi gunetan: San Jose plazan, eta Guggenheim-en inguruan; hor sabai itxurako batean led argiak jarriko dira linean, aramu-sarea osatuz lurretik zazpi metroko altueran. Espaloia eta galtzada ere led-tira batek banatuko ditu eta gainera, semaforoekin koordinatuta, kolorea aldatuko zaio, oinezkoei abisatzeko.

Era berean, **uriko altzariekin ere garrantzi berezia izango dute. Batez ere, 11 terrazetakoak, horiexek dira-eta baimena berritu ahal izango duten bakarrak.** Ez da terraza gehiagorik onartuko, Udalak gai horretan hartutako konpromisoari jarraiki. Udalak bereak zehaztuko du terrazen kokalekua, urbanizazioa amaitzen denean. Terrazetako altzarien kokalekua ere Udalak zehaztuko du; gainera, horietan eguzkitakoak nabarmenduko dira, euren diseinu, ekarpen estetiko eta moldaerraztasunagatik. Oihala kolore argikoa eta bikotza izango da, hau da, hagatxoak gainetik eta azpitik estaliko ditu, manpara itxi bat eratuz; barruan zeinek bere argiak eta hustubideak izango ditu. **Esparru osoko hiri-altzariak zurezkoak izango dira,** inguruari batasuna eta dotorezia emateko. Jardinerak ere egongo dira, loreontzi handien itxurakoak.

Orain dauden zuhaitzen ordez gereziondo japoniarra landatuko dira. Loratze bereziko espeziea da, altuegia izan barik eta kopa handiegia izan barik, egokia kaleari argitasunik ez kentzeko. Kolore berdeago eta neutroago beste espezie batzuk tartekatuko dira. Orain dauden zuhaitzak hortik kendu eta uriko beste gune batean landatuko dira.

Honako hau Iparraguirre kalea lasaiagoa izateko aurreneko urratsa da; ondoren etorriko dira beste batzuk, irizpide berberei jarraituta. Hala ere, tarte bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuko dira irtenbideak proposatzerakoan. **Lehenengo fase honen aurrekontua 1,8 milioi eurokoa da,** lanak gauzatzeko epea 12 hilabekoa eta lanak 2019an hasiko dira.

IPARRAGUIRRE KALEA, GUGGENHEIM-EN ATARIAURREKOA

Irizpide horixe berori ezarri du Bilboko Udalak **Guggenheim inguruan, betiere inguruaren berezitasunen arabera jardinez.** Horiek horrela, trataera berezia emango zaio, eremu hau Museoaren atariaurrekoia izan dadin eta, zergatik ez, jarduera zabaldu edo programazioaren barruan dagoen zerbait denean, zirkulaziorako itxi ahal izan dadin, hartara herritarrok implikatuz eta jendea erakartzeko erabiliz.

Eremu honetan espaloiko eta galtzadako zoladura ez da hain erregularra izango, granito zurizko biribil batzuk jarriko baitira hor-hemen. Galtzada eta espaloia material berekoak izango dira, zorua uniformea izate aldera.

HERRITARREN PARTE-HARTZE BIDEZKO PROZESUA

Proiektu hau zehazteko eta diseinatzeko, **Bilboko Udalak parte-hartze bidezko bilera egin ditu inguru horretako bizilagunekin, merkatariekin eta ostalariekin.** Bilera horietan, besteak beste, irizpideak adostu dira, jendearen beldurak zeintzuk diren jakin dugu eta Bilborentzat funtsezkoa den ardatz honen erabilerekin bat ez datozen jarduketak saihestu dira, Guggenheim Museorako sarbidea eta Azkuna Zentrorako konexio-bidea baita eta hortaz, lanak egin ondoren, pertsonen fluxua horietara eta beste auzo batzuetara bideratuko da, betiere kontuan hartuz bertako ibilgailu nahiz oinezkoen joan-etorriak lehentasunezkoak izango direla proiektuaren barruan.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO MEJORA IPARRAGUIRRE COMO EJE DE CONEXIÓN ENTRE EL GUGGENHEIM Y AZKUNA ZENTROA Y OPTIMIZA EL ACCESO A SUS PORTALES

- El Consistorio abordará en 2019 el primer tramo entre el Museo Guggenheim y la Plaza San José, favoreciendo la coexistencia entre tráficos, pero dando prioridad a las personas frente a los coches.
- Para ello se ampliarán las aceras, que compartirán cota con la propia calzada, separadas por una señalización luminosa que incorpora los ciclos semafóricos, y se mantendrá el carril de circulación de sentido único que existe en la actualidad.
- El entorno del Guggenheim tendrá un tratamiento especial para hacer de ese ámbito una antesala del propio Museo e incluso formar parte de su actividad y programación.
- Se trata de un proyecto de barrio y de ciudad que respeta los compromisos alcanzados con los vecinos y vecinas en las diferentes reuniones de participación ciudadana que el Ayuntamiento de Bilbao ha mantenido para definir el proyecto.

(Bilbao, 11 de diciembre de 2018). El Ayuntamiento de Bilbao **reforzará Iparraguirre como eje de conexión entre el Museo Guggenheim y Azkuna Zentroa**. Lo hará por fases y hoy el Concejal de Obras, Servicios, Rehabilitación Urbana y Espacio Público, **Asier Abaunza**, ha presentado la primera, que comprende el tramo entre la propia pinacoteca y la Plaza San José. Se trata de un ámbito de actuación de 8.500 metros cuadrados y de una longitud lineal de 330 metros, donde se dará prioridad al peatón ampliando las aceras, que pasarán de tener 3,5 a 5,5 metros.

Además, aceras y calzada compartirán la misma cota y se mantendrá el carril de circulación de sentido único que existe en la actualidad. Las plazas de aparcamiento serán retiradas pero se recuperarán en la reordenación de los aparcamientos que se realizarán próximamente en la calle Juan de Ajuriaguerra.

Las aceras se repavimentarán con granito para dotar al entorno de materiales de calidad. **La iluminación tendrá un papel protagonista en toda la actuación**. Las farolas estarán unidas por una catenaria en zig-zag, de la que se suspenderán luminarias lineales tipo led realizando un dibujo aleatorio para dar dinamismo al entorno, uniéndose al Museo Guggenheim y Azkuna Zentroa.

Esa misma sensación de movimiento se intensificará en dos zonas: en la Plaza San José y en el entorno Guggenheim, donde se realizará un techo virtual con un entramado de luminarias lineales de luz led en forma de tela de araña, a siete metros de

altura. También será una tira led lo que separe aceras y calzada, que cambiarán de color en coordinación con los semáforos para indicar a los peatones.

Asimismo, **el mobiliario urbano tendrá una especial relevancia. Sobre todo el de las 11 terrazas existentes, que son las únicas que podrán renovar su autorización.** No habrá más terrazas, ni en número ni en espacio, atendiendo al compromiso municipal en este sentido. Será el propio Ayuntamiento el que delimita su situación en la urbanización final. Del nuevo mobiliario urbano de terrazas, que también será ubicado por el Consistorio, destacarán las sombrillas por su diseño, su aportación estética y versatilidad. Su tela será de color claro y doble, es decir, cubrirá las varillas por encima y por debajo, creando una mampara cerrada que en el interior albergará su propia iluminación y desague. **Todo el mobiliario urbano del ámbito será en madera con el objetivo es dotar de uniformidad y estética al entorno.** También habrá jardineras con forma de maceta de gran tamaño.

El arbolado será sustituido por cerezos japoneses, una especie de relevancia por su especial floración, sin gran altura y copa para no restar luminosidad a la calle. Se alternará con otras especies de colores más verdes y neutros. El arbolado actual será trasladado y trasplantado en otra zona de la Villa.

La tranquilización de Iparraguirre tendrá continuidad a través de nuevas fases, donde se seguirán los mismos criterios que en esta primera y se aportarán soluciones atendiendo a las características de cada tramo. **Esta primera fase tiene un presupuesto de 1,8 millones de euros,** un plazo de ejecución de 12 meses, y las obras comenzarán en 2019.

IPARRAGUIRRE, ANTESALA DEL GUGGENHEIM

Este mismo criterio ha aplicado el Ayuntamiento de Bilbao al entorno del Guggenheim, **donde se ha querido potenciar la actuación atendiendo a la particularidad de la zona.** De esta forma, tendrá un tratamiento especial para transformar este ámbito en una antesala del propio Museo donde, incluso, se pueda cortar el tráfico para extender su actividad o que forme parte de la propia programación; implicando a la ciudad y funcionando como reclamo.

En este ámbito el pavimento de la acera y calzada no será tan regular porque estará salpicado con círculos de granito de color blanco. Calzada y aceras compartirá el mismo material para dotar al suelo de uniformidad.

PROCESO DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Para la definición y el diseño de este proyecto, **el Ayuntamiento de Bilbao ha mantenido reuniones de participación ciudadana con vecinos y vecinas, comerciantes y hosteleros del entorno.** Los encuentros han servido para consensuar criterios, conocer temores y evitar actuaciones que no encajen con los usos de un

entorno que es eje fundamental de Bilbao, puerta de entrada al Museo Guggenheim y conexión con Azkuna Zentroa y otros barrios; donde el flujo de personas será redirigido gracias a esta actuación, teniendo claro que los accesos rodados y peatonales de las vecinas y vecinos serán una prioridad del proyecto.